



Gazteriaren Euskal Legea egiteari buruzko justifikazioko memoria

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.39 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak gazte-politikaren eskumen eskusiboa du.

Bestalde, EAE osorako erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako foruzko jardute-erakundeen arteko harremani buruzko 27/1983 Legeak xedatzen du autonomia-erkidegoko erakunde komunei dagokiela legegintza, bai eta gazteei buruzko politika-arloko jardun zuzena ere. Horrenbestez, erakunde horien eskumena da ez bakarrik hartzea gazte-kolektiboaren sustapenean eragina duten neurriak, bai eta jarraibideak zehaztuko dituen gazte-politika bat egitea ere, aipatu kolektiboa garatu, sustatu eta indartzeko EAEko toki- eta lurralde-administrazio publikoen ekintzak haren barruan gauza daitezen.

Era berean, udal-esparruari dagokionez, aintzat hartu behar da apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 17.36 artikuluan xedatzen baitu udalerrien eskumenak direla gazteria-politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea.

Azken hamarkadetan, bai EAEko erakunde publikoetan, bai gazte-esparruan esku hartzen duten erakundeetan, politika-eredu bat taxutu da EAEko gazteen behar eta eskaera aldakorrek kontuan hartuta. Hartara, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Politikak barruan hartzen ditu, alde batetik, gazteen autonomia, emantzipazioa eta gizarteratzea ahalbidetzeko neurriak, gazteentzako zeharkako politikak planifikatu, gauzatu eta ebaluatzearen bidez, eta, bestetik, gazteen sustapena, gazteentzako jarduera, zerbitzu eta ekipamendu berezien bidez, gazteen beren parte-hartzea bideratzen duten prozesuak eta bideak erabilia.

Arauen ikuspegitik, Gazte Politikaren hiru eduki horietatik bakarra arautu da orain arte lege-mailarekin: gazteen parte-hartzea, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari buruzko 6/1986 Legearen bidez.

Gazteen arloko politika integrala edo zeharkakoa sustatzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak hasi zenetik erakutsi du sentiberatasun berezi bat gazteen beharren aurrean, eta, horren adierazgarri, pixkanaka finkatu ditu gazteei zuzenean eragiten dieten politika sektorialak koordinatzeko moduak, eta lan-dinamikak, tresnak sendotu eta sortzekoak, erakundeak urratsez urrats kontzientzia daitezen gazteentzako politika integralak koordinatzeko benetako beharraz, ez eraginkortasun ekonomiko hutsagatik, bai eta logika eta eraginkortasun politikoengatik ere. Gazte-politiken normalizazio horren lehen pausua 1985ean gertatu zen, orduan sortu baitzen Gazteriaren Nazioarteko Egunaren Euskal Batzordea. Hori izan zen gazte-politika integralak koordinatzeko eta sustatzeko lehenengo tresna. Bertan, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiek eta EAEko udalek parte hartu zuten. Erakunde horiek osatzen dute gaur egun ere –eta ez da kasualitatea– Euskadiko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea. Bestalde, gizarte-eragileek, alor



honetako EAEko elkarteek alegia, biltzar bat egin zuten 1992. urtean, eta bertan ondorioztatu zuten beharrezkoa zela gazte-plan integral bat mamitzea, euskal instituzioek bakoitzak bere aldetik bideratzen zituzten jarduketak bateratzeko, azken batean, gazteen emantzipazioan, bizimoduan eta heldutasun-bide arrakastatsuan eragiten duten eremuetan. Ernamuin hori 1997an finkatu zen, sailarteko akordio batekin, Eusko Jaurlaritzako sail guztiek koordinatuta lan egiteko konpromisoa hartu baitzuten. Ez alferrik, gazteriaren esparrua jarduketa-arlo bat da, zeinean EAEko botere publikoen arteko eskumen-mugaketaren ondorioz ezinbestekoa baita haien guztien artean koordinazio-ahalegin handia egitea. Akordio horrekin bat egin zuten EAEko foru-aldundiek eta udalek urtebete geroago, 1998an, orduan erabaki baitzuen Euskadiko I. Gazte Plana sortzea, zeina 1999an jarriko baitzen indarrean. Denboran gertuago dago Euskadiko II. Gazte Plana, 2002-2005erakoa, zeinean Eusko Jaurlaritzak Kultura Saileko Gazteria eta Komunitate Ekintzako Zuzendaritzak inplikaturako gainerako administrazio-mailen parte-hartzearekin egindako oinarrizko ildo estrategikoak bildu baitzituen. Dokumentu horren bidez, bakoitzaren eskumenak errespetatuta, erantzun instituzional koordinatua eta, lurraldearen ikuspegitik, kohesionatua eman zitzaizen EAEko gazteen eskaerei eta beharrei bost azterketa-arlotan (lana eta laneratzea, hezkuntza eta enplegurako prestakuntza, etxebizitza, osasuna eta gizarte-ekintza eta aisialdia eta gazte-kultura). Ondoren, Eusko Jaurlaritzak aldi baterako neurri batzuk (hasieran, Gazteriaren Euskal Legea onartu artekoak) onartu zituen 2006ko abenduan, gazteei buruzko politika integral hori bultzatzen jarraitzeko.

Arauen ikuspegitik, sailarteko eta erakundearteko koordinazio-organoa arautu zen honako honen bidez: *239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu, erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak moldatua.*

Bestalde, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu zen, “Euskal Autonomia Erkidegoko Gazte Planeko” ikerketa-, informazio eta etengabeko dokumentazio-eginkizunak betetzeko, honako agindu honen bidez: *Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko.*

Geroago, Gazteriaren Euskal Behatokiak Euskadiko gazteen egoerari buruzko diagnosi-txosten bat egin zuen 2009ko irailaren eta abenduaren artean, oinarrizko erreferentzia-elementua izan zedin EAEko III. Gazte Plana egiteko. Kontuan hartuta gazteria-arloko eskumenen deszentralizazioa, gazte-elkarteen sarearen garapena eta EAEko erakunde guztiek eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak egindako bidea, eta bi hamarkada baino gehiago igaro ondoren politikak, planak eta neurriak ezartzen gazteen beharrei eta arazoei erantzuteko, Euskadiko III. Gazte Planak, aurreko planek ez bezala, lehenik eta behin autonomia-erkidego osorako erreferentziazko esparru orokor bat egitea jaso du, bertan biltzeko, modu orokor eta globalean, gazteen arloan EAEko administrazio publikoen jarduna bideratu behar duten jarraibideak eta esku-hartze ildoak. Hartara, honako dokumentu hau egin zen: ***III. Gazte Plana 2020ren Marko Orokorra. Gazteriaren arloko euskal estrategia.*** Bertan, 2020. urtera arteko epe ertaineko beharrak, lehenasunezko erronkak, helburu estrategikoak eta esku-hartze ildoak zehaztu ziren, EAEko gazteen beharrei eta eskaerei buruz kontsulta-fasean hitzartuz joan zen diagnostiko batetik abiatuta. Esparru orokor hori garatuta, zenbait gazte-plan egin, bete eta ebaluatu dira legegintzaldi bakoitzerako EAEko zenbait erakunde publikotan; besteak beste, *Eusko Jaurlaritzaren III. Gazte Plana 2014-2016.* Egun, Eusko Jaurlaritzaren IV. Gazte Plana indarrean dago.

Gazte Politika osatzen duen beste atalari dagokionez, hau da, haurrak eta gazteak sustatzeari dagokionez, jarduerak, zerbitzuak eta ekipamenduak zuzentzen zaizkie berriaz hurrei eta gazteei, berorien garapen soziala bultzatzeko, banan-banan bezala talde moduan ere, batez ere honako hauek sustatuz: ekimena eta sormena; mugikortasuna; informazioa, aholkularitza eta hezkuntza ez-formala izateko aukera; aisialdi parte-hartzailea; eta ondasunetarako eta zerbitzuetarako sarbidea.

Arauen ikuspegitik, eta unean uneko gizarte-eskariari erantzunez, erregelamenduzko zenbait xedapen eman dira 1985etik haurrak eta gazteak sustatzearekin zerikusia duten esparru hauetan:

- Jarduera-araubidea (*170/1985 Dekretua, ekainaren 25ekoa, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen araubidea arautzen duena*).
- Eragileen prestakuntza, zeina 1985ean arautu baitzen estreinakoz, eta eguneratu 1994. eta 2016. urteetan (*419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena; eta Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzeko*).
- Gazte-informazioa (*14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Tegi Koordinatzailea sortzen duena eta 211/1993 Dekretua, 1993ko uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onspen ofiziala arautzen duena*).
- Gazte-aterpetxeak eta beste instalazio batzuk (*406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, haur eta gazte taldeen lojamendu eta egonaldiatarako aterpetxe eta instalakuntza antolaketari buruzkoa eta Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena, aipatu dekretu hori garatzen duena*).
- Nazioarteko gazte-txartela (*260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko "Gazte txartela-Carnet joven" eratu eta arautzeko dena*).
- Gazte-elkarteen eta gazteriarri zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen zentsua (*Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailekoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteriarri zerbitzuak ematen dizkieten erakundeen zentsua sortzen da*).

Hala bada, Gazte Politika, arauen ikuspegitik, ibilbide luzeko sektore bat da, baina desegituratua eta zatitua. Autonomia-erkidegoaren eskumen eskusiboa izan arren, Gazte Politikak ez dauka bere osotasuna edo atal guztiak biltzen dituen lege-mailako arauketarik, gazteen parte-hartzetik harago, eta, horren ondorioz, besteak beste, ez dauka zehapen-araubiderik sektorea antolatu ahal izateko. Gainera, sailarteko eta erakundearteko koordinazioa erakunde eta sail bakoitzaren borondate politikoaren mende dago, eta, horren ondorioz, udaletako, diputazioetako eta Eusko Jaurlaritzako gazte-erakundeek, batez ere legegintzaldi bakoitzaren hasieran, neurritz gaineko sentsibilizazio-, sozializazio- eta konpromisoen bilaketa-ahalegina egin behar dute.

Gazteriaren Legea egitearen beharraren eta egokitasunaren justifikazio hori, azken hamarkadotan, adierazitako edukiaren eta norainokoaren arabera, erabilitako aukerak kontuan hartuta, ez da gauza berria, parlamentuko tramitea gainditu ez zuten Gazteriaren Euskal Lege-proiektuak egin zirelako VIII. eta IX. legegintzaldietan. Hartara, bai *2007ko urtarrilaren 15eko Aginduan*, bai *Gazteriaren Euskal Lege-proiektua egiteko prozedura hasteko Kulturako sailburuaren 2009ko irailaren 8ko Aginduan* honako hau jaso zen: “Gazteriaren Euskal Lege-proiektua egitearen egokitasuna eta bidezkotasuna, gure autonomia-erkidegoan gazte-politikari bere osoan heltzen dion maila horretako lehen araua izango baita”.

Bestalde, 2013ko maiatzaren 6an Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordean egindako agerraldian, Gazteriaren lege bateko onespenerako Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren aldeko jarrera berriro ere nabarmendu zen.

Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzorde horrek *Gazteen arazoei erantzuteko azterketa- eta eztabaida-batzordearen txostena* onartu zuen aurreko legegintzaldian, eskatutako agerraldi guztiak amaitu ondoren; agerraldi horietan, zenbait erakunde publiko eta pribaturen artean, hauek ordezkaturik egon ziren: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteriako zuzendari nagusia. Txosten horretan, beste zenbait gomendioren artean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio gazteei buruzko euskal legea egiteko, gazteei eragiten dieten politikak egiten dituzten edo egin behar dituzten sail guztien artean, eta herritarrek nor bere izenean parte hartuta, bai eta kolektiboek ere, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren bitartez, eta, jakina, administrazio guztiekiko lankidetzan.

Ildo beretik, Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko martxoaren 23an egindako saioan, Legez besteko 39/2017 Proposamena onartu zuen, gazteen enpleguari buruzkoa, honako testu honekin: “Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio Gazteriaren Euskal Legea egin dezala 2017. urtea amaitu baino lehen parte-hartze prozesu baten bidez, administrazioen (zein bere eskumen-esparruan), Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, Arartekoaren eta gazteriarekin lotutako elkarte eta mugimenduen parte-hartzearekin. Lege horrek X. legegintzaldian gazteriaren beharrei erantzuteko eraturako txostenean ateratako gomendioak kontuan hartu beharko ditu, garrantzia berezia emanez jarraian adieraziko diren puntuei: landa-eremuan proiektuak garatzearen alde egiten duten gazteak babestea; gazteen autoenplegu eta kooperatibismoa babestea; lanaldia eta ikasketak bateragarri egiteko kontratuak sustatzea, ikasketen garapena bermatzeko; eta hasieran adierazitako prozesu parte-hartzailean itundutako ekimen barnebiltzea.

Gazteriaren Euskal Legeak, azken batean, gazteengan eragin zuzena duten politika sektorialen koordinazio-lanean urteetan egindako ahalegin handia finkatzen du, eta, beraz, EAEko erakunde guztiek baliozkotutako ibilbide bat amaitzen. EAEko eragile politikoek gazteei buruzko politika integralei dagokienez hartutako konpromisoari sendotasun handiena emango dion tresna da. Legeak babesa eta egonkortasuna emango dizkio instituzioek luzaro erabili, bereganatu eta sustatu duten jardunbide bati.

Gazteriaren Euskal Legea sortu den testuinguruan, zenbait esparrutatik, parlamentu-esparrutik barne, arau integratzaile bat egiteko eskatu da, eta lege-esparru bat onartzeko, estaldura eman diezaion gazteria-arloan urteetan mamituz joan den politika integralen ibilbide finkatuari, eta lege horrek, aipatu egoera horren emaitza izanik, Eusko Jaurlaritzako sail guztiak, hiru foru-aldundiak, Eudel-Euskadiko Udalen Elkarte eta

gazteak berak inplikaturak dauden ekintza positiboko neurrien irudi egonkorra eta bermatzailea emango du.

Horregatik guztiagatik, egokia da honako hauek egiteko balio duen lege bat egitea: EAEko administrazio publikoek gazteria-arloan dituzten eskumenak eta eginkizunak arautzea; gazte-emantzipazioa eta, administrazio publikoan, gazteen ikuspegia sustatzea; zeharkako gazteria-politikak koordinatzea, planifikatzea eta ebaluatzea; gazteak bultzatzea gazteentzako programa, jarduera, zerbitzu eta ekipamendu espezifikoaren bidez; eta, aldi berean, gazteen parte-hartzea sustatzen jarraitzea.

Legearen hartzaileak edo onuradunak nor diren zehaztea da zirriborroa prestatu bitartean argitu beharreko kontuetako bat. Autonomia-erkidego gehienetako Gazteriaren Legean, 14 eta 29 urte arteko pertsona da gaztea. Hala ere, beharrezkotzat jotzen da legearen xede-publikoa segmentatzea; hau da, gazteak banatzea legea egituratuta dagoen esparru handien arabera. Eta hala, gazteak emantzipatzeko politikari dagokienez, gazteak gutxienez 18 urte eta gehienez 30 urte dituztenak dira; hori guztia baztertu gabe programa eta jarduketa jakin batzuek, zer-nolakoak diren eta zer helburu dituzten kontuan hartuta, beste adin-muga batzuk izatea; adibidez, etxea eskuratzeak edo nekazaritza-ustiategiak izateak 30 urtetik gorakoentzat. Gazte-sustapenaz den bezainbatean, gazteek gutxienez 12 urte eta gehienez 30 dituzte; horren ondorioa da arreta etengabea izatea haurtzarotik eta nerabezarotik, batez ere EAEko udalerrietan oro har aplikatzen ari den bezala. Hari beretik, jarduerak arautzean, kontuan hartzen dira adingabeek esku hartzen duten kasuak, adibidez, batez ere, aisialdiko hezkuntza-jarduerak eta jolas-jarduerak, segurtasun-, higiene-, osasun-, ingurumen- eta hezkuntza-baldintza espezifiko batzuk betetzea premiazkoa baitute, hala nola lurraren edo eraikinaren jabearen baimena izatea, lagunduta ez doazenean aitarena, amarena, tutorearena edo legezko ordezkariarena, eta, orduan, gainera, titulu egokia duten arduradunen kopururako gutxieneko bat egongo da; horregatik, Gazteriaren Legea adingabe guztiei aplikatu ahal izango zaie, daukaten aisialdiaren erabilerrari dagokionez eta haur-sustapenaren esparruan.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren ekintza zuzeneko adierazpenaren arrazoiketa zehaztu behar da.

Lehenengo eta behin, Autonomia Erkidegoko Administrazioari ekintza zuzenaren eskumena ematen zaio, emantzipazioaren inguruko informazioa, orientazioa eta laguntza eskaintzeko orduan. Gazte bakoitzak behar duen orientazio pertsonalaren arabera da hori; batez ere, kontuan hartuta dagoeneko ez dagoela gizarteratzeko ibilbide bakarra, baizik eta ugari, gazte bakoitzaren ezaugarri eta beharrezko zehatzen arabera. Kasu askotan, gainera, ibilbide itzulgarriak dira, orientazio-prozesua berregokitu beharra eskatzen dutenak. Hori dela-eta, emantzipaziorako laguntza-prozesua gazte informazio bulegoen bitartez abiarazten da; ondoren, bigarren urrats gisa, orientazioa dator, hau da, zerbitzu espezializatuetara bideratzea (batez ere, Lanbide eta Etxebideren zerbitzuetara); eta, amaitzeko, hirugarren urratsa: emantzipaziorako laguntza, gazte bakoitzari bere gizarteratze-ibilbidea diseinatzeke emandako laguntza pertsonalaren bitartez. Prestakuntzaren egokitzapenetik hasita, gazteen emantzipazio zerbitzuak orientazioa eta laguntza eskaintzen ditu, gazteek lana aurki dezaten eta, modu horretan, etxebizitza ere eskuratu dezaten. Hori dela-eta, beharrezkoa da lana modu koordinatuan egin dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, hezkuntza-esparruko orientatzaileekin eta Autonomia Erkidegoko Administrazioako zerbitzuekin (adibidez, Lanbide eta Etxebide), horiek guztiak osagarritzat hartuta.

Beraz, emantzipazio zerbitzua hiru ardatzetan oinarritzen da: hezkuntza-esparrua, lan-esparrua eta etxebizitza-esparrua, hirurak ere Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eskumenekoak. Horrela, zerbitzu bateratua ematen zaie hala eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko gazte guztiei. Ondorioz, emantzipazioaren inguruko informazio, orientazio eta laguntzaren koordinazioak eskatzen dituen baldintza tekniko zehatzak eta interes orokorra kontuan hartuta, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekintza zuzentzat jotzen da, modu bateratuan eskain dadin Euskal Autonomia Erkidego osoan.

Bigarrenik, ekintza zuzenaren eskumena ematen zaio Autonomia Erkidegoko Administrazioari, nazioarteko jarduerak eta programak betetzeko orduan eta plaza-trukea dakarten programak betetzeko orduan, bai eta mugikortasun, ostatatze, gazte aterpetxe, gazteen turismo eta gazte-trukeen inguruko jardueretan, bai lurralde historikoen artean egiten direnetan eta bai Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora egiten direnetan, bereziki beste autonomia erkidego batzuetan eta nazioartean. Era berean, erraztasunak emango dira arlo horien inguruko informazioa, kontsulta eta aholkularitza eskaintzeko orduan.

Horrek guztiak zalantzarik gabe gainditzen ditu tokian tokiko eta lurralde mailako esparruak, bai nazioarteko jarduerari eta programei dagokienez, bai beste erkidego eta herrialde batzuekin plazak trukatzeko balio duten programei dagokienez; hor sartzten da, esate baterako, autonomia erkidegoek “Gazte auzolandegiak” izendatutako programa (lehenago, Landa-lanak deitu ziren). Horren barruan sartzten dira, era berean, ohikoa ez den udalerrira edo lurraldera joan edo bertan ostatu hartu beharra dakarten jarduerak eta programak, tartean Gazteen Aterpetheen Presentziarako eta Sustapenerako Partzuergoa – Gazteen Aterpetheen Espainiako Sarea – REAJ Partzuergoak (Eusko Jaurlaritza, Gazteria Zuzendaritzaren bitartez, partzuergo horretako kide da, Euskal Autonomia Erkidego osoaren ordezkartzan) sustatzen dituen eta gazte aterpetxeekin zuzenean lotuta dauden jarduerak eta programak. Aipatutako Partzuergo horrek izaera juridiko propioa dauka, eta bere helburua da autonomia erkidegoetako aterpetxeek presentzia izatea Nazioarteko Gazte Aterpetheen Federazioan eta Europako Gazte Aterpetheen Federazioan, gazteen mugikortasunaren, lankidetzaren eta elkarrekiko ezagutzaren alde egiteko asmoz. Era berean, REAJ Partzuergoaren beste helburuetako bat da gazteen mugikortasuna sustatzea Estatuko lurraldean, bere gazte aterpetheen bitartez edo Partzuergoko kide den autonomia erkidego bakoitzeko Gazte Aterpetheen Sarearekin bat eginda dauden aterpetheen bitartez. Gainera, tokian tokiko esparrua gainditzen duen edo nazioartekoa den gazte turismoa ere sartzten da ekintza zuzenaren atal honetan, bai eta lurralde historikoen artean eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora egiten diren gazte-trukeak ere, batez ere beste autonomia erkidego batzuekin eta nazioartean egiten direnak. Era berean, erraztasunak emango dira arlo horien inguruko informazioa, kontsulta eta aholkularitza eskaintzeko orduan.

Beste alde batetik, lurraldeen arteko mugikortasunaz gain, bigarren bloke honek erreferentzia egiten dio beste autonomia erkidego eta eskualde batzuekin harremanak, negoziazioak eta akordioak finkatu beharriari. Beraz, lurralde historikoetako jurisdikziotik gorako ekintza-esparrua duten instituzio eta erakundeei dagokie jarduera-mota hau.

Azken batean, plazen eta pertsonen trukearen irismenak eta mugikortasunaren sustapenak kasu guztietan gainditzen dute lurralde historiko bakoitzaren esparrua, eta modu bateratuan eskaini behar zaizkie hala eskatzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko gazte guztiei, ez soilik ekintza horien interes orokorragatik, baizik eta –batez ere– beste

autonomia erkidego eta herrialde batzuekin trukatu beharreko plazen kupoa modu bateratu eta homogeenan koordinatu eta eskaini behar delako.

Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekintza zuzentzat hartzen den hirugarren blokea gazteen trebakuntza eta gazteekin erlasionatutako gaietan lan egiten dutenen trebakuntza da, bai eta lurraldearen esparrua gainditzen duten eremuko diplomak ematea ere.

Gazteen Legearen ondorioetarako, trebakuntzaren barruan sartzen da, alde batetik, gazteen trebakuntza (hau da: gazteei zuzendutako eta Hezkuntza Sistematik kanpoko trebakuntza); eta, bestetik, modu boluntarioan zein profesionalean, gazteekin erlasionatutako gaien inguruan lan egiten dutenen trebakuntza.

Trebakuntza, oro har, aldundien lurralde-eremuko eskumena ere bada, baina, Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremani buruzko Legeak (LHL) ezarritakoaren arabera, trebakuntza jakin batzuek lurraldez gaindiko aitortzea dakarte, eta autonomia erkidegoek kasu batean baino ez dituzte onartzen titulazio horiek: diplomak dagokion autonomia erkidegoko Gazteria arloko erakundeak eman dituenean. Halaxe gertatzen da Haur eta Gazteen Aisialdirako heziketa-jardueren begirale eta zuzendari izateko diplomak kasuetan, azaroaren 2ko 419/1994 Dekretuak, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariek Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duenaren arabera. Dekretu horrek xedatutakoari jarraituz, foru aldundiek eskolak eta ikastaroak aitortzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean izapidetzen dituzte eskolen amaierako aktak, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak diploma horiek eman ditzan eta, horrela, gainerako autonomia erkidegoetan ere aitortuak izan daitezten.

Hala ere, kontuan izan behar da eskumen hori ez dela baztertzailerik, eta, beraz, foru aldundiek trebakuntza eskain dezaketela eta diploma propioak ere eman ditzaketela beren lurralde-esparruaren barruan, Eusko Jaurlaritzak aurreko blokean sartutako ekintza zuzeneko gaietan egiten duen moduan; esate baterako, lurraldez gaindikoak diren “Gazteen mugikortasunerako baliabideak Europar Batasunean” ikastaroen kasuan.

Beraz, kontuan hartuta lurraldez gaindiko aitortzea duten zenbait trebakuntzaren interes orokorra eta autonomia erkidegoek elkarren artean diplomak inguruan ematen dituzten aitortzen baldintza tekniko zehatzak, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekintza zuzentzat jotzen da gazteen trebakuntza eta gazteekin erlasionatutako gaietan lan egiten dutenen trebakuntza, bai eta lurraldearen esparrua gainditzen duten eremuko diplomak ematea ere, eta ekintza hori Euskal Autonomia Erkidego osoan modu bateratuan eskainiko da. Azken batean, funtsezko jardueraren baten kudeaketaz ari gara, arlo publikoak gai honetan duen eraginkortasuna bermatu ahal izateko. Helburuaren irizpidearekin bat etorriz, gazteen trebakuntzaren arloko ekintza zuzenaren eskumenak bermatu egiten du berau modu homogeen eta bateratuan eskaini ahal izatea Euskal Autonomia Erkidegoan; batez ere, kontuan izanik elkarren arteko aitortzea duela Estatuko Autonomia Erkidego guztien artean.

Laugarrenik, gazteen emantzipazioari buruz hitz egiterakoan behin baino gehiagotan adierazita geratu den moduan, emantzipazioa lortzeko oztipo nagusietako bat da gazteek

nolako zailtasunak dituzten lan duin bat eskuratzeko orduan. Hori dela-eta, oso interesgarritzat jotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteriaren eskumena duen organoa lankidetzan aritzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan gazteen ekintzailatza bultzatzeko eskumena duen organoarekin, gazte guztiak modu homogeneo eta bateratuan emantzipatu daitezen Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan.

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei zuzendutako lurraldez gaindiko edo nazioarteko programak eta jarduerak garatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko publiko eta pribatuei diru-laguntzak emateko ekintza zuzenaren eskumena Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio, bai eta lurralde, erkidego eta herrialdeen artean gazteen aterpetxeak eta mugikortasuna sustatzeko eskumena ere, eta, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei nazioarteko programetara iristeko laguntzak ematekoa.

Bidezkozat jo behar dira (sustapen arloko funtzio bati dagokie, eta horrek ez dio eragiten foru administrazioek gazteria arloko politikak betearazteko orduan duten eskumenaren titulartasunari), alde batetik, Euskal Autonomia Erkidego osorako erakundeek zuzenean garatzen dituzten eta diruz lagundu daitezkeen jarduerak, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei zuzendutako ekintza zehatzak garatzen dituztenen alde, betiere, garapen-esparrua Euskal Autonomia Erkidegotik gorakoa denean; eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei laguntzak ematea, nazioarteko programetara iristeko aukera izan dezaten. Ezinbesteko neurriak dira; izan ere, horien bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei aukera-berdintasuna bermatuko zaie Autonomia Erkidegotik kanpora (Estatu mailan zein nazioartean) garatzen diren ekintza zehatzetan eta programetan parte har dezaten.

Kontuan izan behar da atal honetan jasotako diru-laguntzak gazteen bizi-kalitatea sustatu eta hobetzera daudela bideratuta, eta, beraz, interes orokorrekotzat hartzen dira, eragin nabarmena baitute haien garapen pertsonalean eta gizarteratzean; izan ere, aisialdiaren eta denbora librearen esparruan gauzatzen dira, eta, modu horretan, enpleguaren, etxebizitzaren edota hezkuntza formalaren esparruetan gazteen kolektiboari zuzendutako beste neurri batzuk osatzen eta sendotzen dira, kontuan hartu behar baita kolektibo horrek aukera ematen duela gizarteko parte-hartze aktiboa eta garapen pertsonala modu informalean edo ez-formalean lantzeko, testuinguru horretan gazteak bereziki harkorrak eta proaktiboak dira-eta.

Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei zuzendutako lurraldez gaindiko edo nazioarteko programak eta jarduerak garatzeko diru-laguntzen kasu zehatzean, errentagarritasun eta eraginkortasun terminoetan, nabarmendu behar da lurraldez gaindiko dimentsioa duten eta lurralde historiko bat baino gehiagoko hartzaileei zuzenduta dauden proiektuak finantzatzeko aukera ematen dutela. Ondorioz, eskalako ekonomiak landu daitezke, eta horrek zabalkunde eta inpaktu handiagoak ahalbidetzen ditu parte-hartzaile gazteen artean, erakundeen artean eta inplikaturako tokiko komunitateetan. Gainera, diruz lagundu daitezkeen proiektu-motak nekez sustatu ahal izango liriateke beste moduren batean; izan ere, lurraldez gaindikoak direnez, mugatuta daude tokiko administrazioen laguntzak jasotzeko orduan, edo ezin dituzte laguntza horiek jaso.

Lurralde, erkidego eta herrialdeen artean gazteen aterpetxeak eta mugikortasuna sustatzeko diru-laguntzen kasuan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gazteei nazioarteko programetan parte hartzeko ematen zaizkien laguntzen kasuan ere, modu

berezian hartu behar dira kontuan Europar Batasuneko Kontseiluak eta kide diren estatuetakoko gobernu-ordezkariek 2008ko azaroaren 21ean gazteen mugikortasunari buruz ateratako ondorioak, Kontseiluan egindako bileran (Aldizkari Ofiziala, 2008.12.16, C 320 zk.). Zehazki, ideia hau nabarmendu behar da: gazteen mugikortasuna funtsezkoa dela Europako kide izatearen sentimendua indartzeko, beste kultura edota herrialde batzuen inguruko sentsibilizazioa areagotuz, parte-hartzaile gazteen artean eta beren jatorrizko zein harrerako elkarteen artean lurraldez gaindiko sareak sortzeko aukera emanez. Gainera, ahalmenak, trebetasunak eta gaitasunak garatu behar dira, beren gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetzeko eta Europako ekonomiaren lehiakortasuna bermatzeko. Mugikortasuna sustatzeko jarduerak, orokorrean, irabazi asmorik gabeko erakundeek egiten dituzte, baina zailtasunak izaten dituzte finantziaziorako eta jarduera horiek ordaintzeko. Horrek murriztu egiten du jardueren irismena (hartzaile-kopuruari dagokionez) eta kalitatea (egindako jardueren izaerari dagokionez), eta, era berean, kontuan izan behar da jarduera horiek zailtasun eta tenporalizazio berezia izaten dutela, geografikoki eta, batzuetan, kulturalki ere urrun dauden beste erakunde batzuekin lankidetzan eta koordinazioan aritu beharragatik. Gainera, honelako laguntzak jasotzen dituzten sustapen, zabalkunde eta trebakuntza arloko jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten beste administrazio batzuen laguntzak sustatzen dituzte, eta, ondorioz, zabalkunde horrek lurraldez gaindiko ekintza bateratua eskatzen du, eraginkortasuna bermatzeko asmoz.

Hori guztiori dela-eta, bloke honetan jasota dauden eta diruz lagundu daitezkeen programak modu bateratuan eskaini behar dira Euskal Autonomia Erkidego osorako, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek gazteria arloan ematen dituzten jarduerak garatzeko laguntzak berdintasunez jasoko dituztela bermatzeko, edozein lurralde historikotan kokatuta daudela ere. Horrela, ez da tratu-desberdintasunik izango, ez eta lurraldearen araberrako desorekarik ere (foru administrazioek ematen dituzten diru-laguntzen arteko desberdintasunengatik gerta zitezkeen hori). Hain zuzen ere, baldintza hori beharrezkotzat jotzen da sektorearen oinarritzko antolamendurako neurrien erabateko eraginkortasuna bermatzeko eta Euskal Autonomia Erkidego osoan laguntzak lortzeko eta baliatzeko aukera berberak egongo direla bermatzeko.

Jardueraz ez ezik, zerbitzuez, ekipamenduaz eta gazte-politika integrala sustatzeko beste jarduketara batzuez den bezainbatean testuan zehar jasotzen diren baldintza gehien-gehienek esku-hartze tipologia bakoitzari egokitutako maila handiko zehazte espezifiko baten beharra dutenez, alderdi horien erregelamenduzko garapenera jotzen da, esku-hartze mota bakoitzaren ezaugarriekin bat datorren zehaztasun-maila handiagoa lortzeko.

Erregelamenduzko garapen horiek gauzatu bitartean, edo indarreko xedapenak eguneratu, indarrean egongo dira honako hauek legean araututako gai-arloei dagokienez:

- 75/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.
- Agindua, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteriaren Euskal Behatokia sortu eta horren eginkizunak zehazteko.
- 419/1994 Dekretua, azaroaren 2koa, batetik, Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta, bestetik, Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautzen duena; eta Agindua, 2016ko urriaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako

sailburuarena, haur eta gazteen aisialdirako hezitzaileak prestatzeko eskolak eta haur eta gazteen aisialdi-jardueretarako begirale eta zuzendariak prestatzeko ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko modua arautu zuen Dekretuaren I. eta II. eranskinak eguneratzeko.

- 47/88 Dekretua, martxoaren 1ekoa, Gizarte eta Kulturarako Suspertze Eskolen onarpena arautzen duena.
- 71/1998 DEKRETUA, apirilaren 7koa, Gizarte eta Kultura Suspertzailen Eskolak onartzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- Agindua, 1998ko ekainaren 12koa, Kultura sailburuarena, dinamizatzaile soziokulturalen gaikuntzarako gutxienezko egitarauak ezartzen dituena.
- 406/1994 Dekretua, urriaren 18koa, ume eta gazte taldeen egonaldirako eta ostatu emateko instalazioen eta aterpetheen antolamenduari buruzkoa.
- Agindua, 1997ko azaroaren 12koa, Kultura sailburuarena. Agindu honen bidez urriaren 18ko 406/1994 Dekretua garatzen da, hau da, haur eta gazte-taldeen ostatu hartze eta egonaldietarako aterpetxe eta instalakuntzen antolaketaari buruzkoa.
- 260/1995 Dekretua, maiatzaren 2koa, Euskadiko "Gazte-Txartela/Carnet joven" eratu eta arautzeko dena.
- 14/1988 Dekretua, otsailaren 2koa, Gazteen Informazio eta Dokumentaziorako Euskadiko Tegi Koordinatzailea sortzen duena.
- 211/1993 Dekretua, uztailaren 20koa, Gazteentzako Informazio Zerbitzuen onespene ofiziala arautzen duena.
- Agindua, 1986ko urtarrilaren 15ekoa, Kultura eta Turismo Sailekoa. Honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gazte-elkarteen eta gazteriari zerbitzuak ematen dizkieten erakundeentzatsua sortzen da.

Horrenbestez, indargabetuta geratuko dira maila bereko edo txikiagoko arau guztiak, Legean azkenean xedatuaren aurka duten orotan, eta, zehazki, 239/1999 Dekretua, ekainaren 2koa, EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen funtzionamendu, erregimen eta osaketari buruzkoa, urriaren 15eko 240/2002 Dekretuak moldatua.

Gazteei buruzko aurreko lege-proiektuekin alderatuta, egungo proposamenean aldaketa nagusiak hauek dira: Gazteen Euskal Institutua sortzea baztertzen da; eta Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkuraren Legez besteko 39/2017 Proposamen lehen aipatuaren edukia kontuan hartzen da. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriako Sailarteko Batzordea eta Gazteriaren arloko Euskadiko Erakundearteko Koordinazio Organoa sortzen dira, EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordearen ordean.

Hurrengo Gazteriaren Euskal Legeak ez du eragin zuzenik izango gazte-politika sustatzeko aurrekontuetan, hasieran ez baita aurreikusten programa berririk. Izan ere, programa horiek, izanez gero, erregelamenduz garatu beharko dira, eta garapen horren arabera erabakiko da bere garaian aurrekontu-bitarteko berriak izendatu behar diren ala ez.

Bereziki aipatu behar da lege hau bat datorrela haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearekin, azken horretan arauketaren esparrua zehazten baita: "arriku-egoeran edo babesgabezia-egoeran dauden haur eta nerabeen arloa eta arau-hausle adingabeei eman behar zaien gizarte- eta hezkuntza-laguntzaren

arloan”. Bestalde, adingabeko pertsona guztiei aplikatuko zaie gazteriaren lege hau, denbora librearen erabileraren eta sustapenaren alorretan. Ildo beretik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak berak dauka esleituta “Haurrak” arloa, eta hori haurren babesaren gai-arloko eskumen orokorrari edo zeharkakoari buruzkoa dela ulertu behar da, eta ez da eskumen sektorialen kontrakoa, haurren sustapenean gertatu bezala, eta haurren eta gazteen aisialdiaren erabileran, gazteria-arloko sustapenaren eskumenari baitagozkio.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. Artikuluan xedatutakoaren arabera, araudia prestatu baino lehen, alde aurreko kontsulta publikoaren fasea osatu da, iragarkia jarrita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko Iragarki Taulan eta Gobernuaren Irekia Plataforman, 2018ko uztailaren 2tik 23ra herritarren iritziak jasotzeko asmoz. Informazio bera jarri da ikusgai Legegunearen webgunean (Gardentasuna) eta Legesarean, 2018ko uztailaren 2tik aurrera.

2018ko uztailaren 2tik 23ra xede horretarako jarritako epea igarota, ez da aurkako botorik jaso, eta ohar hau iritsi da: “Duela hilabete batzuk, gazteen emantzipazioari buruzko proposamen bat egin nuen, eta izapidean dagoen Legeak puntu hori jaso duela ikusi dut. Zalantzarik gabe, hazten ari den gazteriaren garapenak herrialdearen garapenaren alde egingo du. Europako gainerako lurraldeetan, gazteak lehenago emantzipatzen dira, eta horrek hazkunde demografiko eta ekonomikoaren alde egiten du, bai eta, oro har, norbanako bakoitzaren garapen pertsonalaren alde ere. Eta, horrela, gizartearen garapenaren alde”. Jasotako oharra aztertuta eta baloratuta, testua lantzen jarraitu dugu, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren alde aurreko onespena jaso dezan.

Vitoria-Gasteiz,

Ander Añibarro Maestre
GAZTERIAKO ZUZENDARIA
(Elektronikoki sinatua)

O.E.

Marcos Muro Nájera
ENPLEGU ETA GAZTERIAKO SAILBURUORDEA
(Elektronikoki sinatua)